

---

---

# MARINO LEJARRETA

## TXIRRINDULARIA

---

---

Gure mendiak eta ibarrak  
itxaropenez betiak,  
bizitz ederrez ta osasunez  
agertzen dira jantziak;  
zenbat alditan ikusi dozuz  
gure lur ta arkaitz aundiak,  
egitura ta sendotasunez  
argituz bizitz bidiak.

Dana da eder, oro da sendo,  
Anbotoko aitz zuria,  
mendi magalak eta ibarrak  
itzez azaltzen loria;  
euskaldun lurra, izadi oro,  
deika zeunkan adoria,  
zer egin neike errí onetan  
egin zendun galderia.

Era onetan goratu dozu  
zure odolez endia,  
Luz de Ardiden izango dozu  
bizitzako eguzkia;  
oroz goitikan zuurtasunez  
arritu dozu jentia,  
berez, zentzundun jakatu dozu  
bideak zear egia.

Lur bitartean bídeak ziran  
zuri deika barrenera  
Marino, bildurrik barik  
gure zear babesera;  
gure erria goratu daigun  
albilidade erara,  
ta zuk, leialki, onartu zendun  
abots onaren gisara.

Geroztik, gogoz, jorratu dozuz  
ibar, aldatz ta gallurrak,  
zuri begira, miñez, itzírík  
Euskalerriko bazterrak;  
erri onetan eratu zíñan  
buru, biótz ta azurrak,  
gizontasuna eta zentzuna  
izanik doai jatorrak.

### Lejarreta'tar Marino Jauna

Abegi onez artu egizuz euzko anaiaren bertsoak.  
Erbestetarrak ez zaitue, ez aitatu, ez aipatu zure egi-  
ñen erara. Baiña Euskalerria zugaz bat eginik ikusi  
dot egunerik egunera.

Nuntarra zaran, argí, geratu da, eusko aritza legez  
sendo ta zindoa. Bizikleta garaitza eder ta pozgarria  
da, baiña biderik bide euzkotar gizontasuna idatzíta  
ta lurrari ezarrita iztea, askoz, zabalago ta bikaiñagoa  
da.

Marino, ekin ta jarrai ta aurrerantzian be almen  
eder orren bitartez ízan Euskalerraren gizon eta ar-  
gia.

SOLOZABAL'dar PAULIN'ek